

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbidek, Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, hurrengo **IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK** egiten dizkio **Patxi Lopez lehendakariari**, “2009ko uztailaren 20an eraturako erakunde arteko sei lan taldeen jardunaren inguruan”:

ZIOA:

2009ko uztailaren 20an EUDEL, hiru Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzaren artean, erakundeko arteko sei lan talde eratu ziren. Harrezkero, informazio gutxi izan dugu lan talde horien jardunaren inguruan. Gainera, 2010eko apirilaren 16ko kontroleko plenoan, gai horren inguruan egindako interpelazio baten, Carlos Agirre sailburuak lan talde horietakoren bat amaitutzat jo zuen. Horren aurrean, eta gure lana egiten laguntzeko, hurrengo galderak egiten dizkio Lehendakariari:

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK:

- Zenbat bider elkartu dira 2009ko uztailaren 20an Jaurlaritzaren ekimenez eratu ziren erakunde arteko sei lan taldeetarikoko bakoitza?
- Ze eman du lan talde bakoitzaren jardunak? Jardun horien zehaztapenen berriematea helaraztea.
- Lan talde bakoitzaren ondorioetatik hartu diren, eta hartuko diren, ekimenen berriematea.
- Gaur egun lan talde guztiak, sei lan taldeak, daude martxan?
- Hala ez bada, lan taldeetako zein eman du bukatutzat Eusko Jaurlaritzak?
- Horren berri eman zaie lan taldeetan parte hartzen zuten beste erakundeei?

Gasteizen, 2010eko apirilaren 16an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea